



San Kristobal, txoferren patroia



labarrieta auzuak bi ermita euki zittuan denbora askuan: **San Joserena**, Olazaran auzunaan, oraintxe daguen lekuan, eta **San Kristobalena**, Basaurin, Zabalena eta Aszensoiena baserrixen onduan, Elizalde esaten xakon parajian. Azkenengo ermita hau XIX. gizaldixaren hasieran bota zan eta hango imajiñak beheraguan, kamiño kontran, daguen **san-tuxtura** ekarriko ziran seguru asko. Irudi horreik San Jose, San Kristobal eta Santiagorenak dira eta tamaña eta estilo desberdinetakuaq dittugu: San Kristobal beste bixak baiño haundixagua da, eta Santiago izango da zaharrena, XV. gizaldixaren akaberakua-edo. Erromes moduan agiri da Santiago, bere kapela, txirla, makilla, kurkubitta eta guzti.

San Kristobal, berriz, sorbaldan umia doian gizato bat lez agerketan xaku; makillatatz arbola ostroduna dakola. Ezaguna da antxiñako santu honen leienda itxurako historixia: zubi bariko erreka zabal batian, txanpon batzuen truke, pertsonak bizkarrera jaso eta ertz batetik bestera pasaitten ei zittuan. Behin umetxo bat etorri xakon uraz bestaldera eruan egixen; sorbaldan hartu eta erreka erdixan oiala, aurrera egin eziniñ geratu ei zan gure gizontzarra, umia oso astuna zalako. Majo kostata lihorrera heldu ziranian, zihero harrittuta preguntau ei otsan: *Baiña, nor zara zu? mundu guztiak baiño pixutsuagua emuten dozu!* Eta mutikotxuaren erantzuna: *Arrazoiya dozu. Mundu guztiak baiño gehixago pixaitten dot, mundua neuk sortu neben-eta.*

Umia, jakiña, Jesukristo zan eta, horregatik, gure pertsonajiak **Kristoforo** izena hartu eben handik aurrera, hau da, **Kristo eruanen dauena** griegoz. Kristoforo Kristobal bihurtu zan gure artian eta oso santu famaua da kristandade osuan. Garai batian oiñezkuen zaindarixa zan eta XX. mendetik aurrera kamiói, automobil, motor eta bestelako ibilgailuetan dabilzenen patroia. Transportistak-eta San Kristobal egunian, garagarillaren (uztaillaren) 10ian, ospaketan daue euren jaixa. Oñatin be orain dala berrogeta hamar bat urte ekin otsain zelebraziño honi. Hasieran Olabarrietako santutxuan emuten zan mezia eta ondoren ibilgailuak bedeinkaketan ziran. Geruago, ostera, loraz eta abarraz apaindutako kamiói batian santua hartu eta San Migel parrokixara ekarten hasi ziran eta holaxe egitten daue urtero oraindiok be.

Argazki hau lehenengo urtietakua da, 1957kua, hain zuzen be. Abadiak hiru motor eta bizkletia bedeinkaketan dihardu. Lehenengo motorrian dittugu Juan Mari **Garai** kamazerua eta Roland **Rigault** piletako frantsesa; bigarrenian Reyes **Urtaza**, kamazerua hau be; atzerago, ezkerretara dagozen gizona eta mutikua ezittugu ezagutu; hurrenguaq honeik dira: Jesus Mari **Arregi**, Etxaluze plazuelako mueblerixakua; monagillo-lanetan Pedro **Arregi**, Atzeko kaleko Juanitosienekua eta Joxe Ramon **Galarza**, Bakardade kalekua; honein erdixan Juan **Mujika** eta atzian Jose Mari **Agirrebaltzategi**, parrokixako abade jaunak; eta eskuma aldiñ be olabartar: Leandro **Arrazola**, Billargua eta Juan Joxe **Orueta**, Santzakua.

J. E.

Fotografixia Udaleko Argazki-fondoko Andres Arlanzón-en saillian dago. Argibide batzuk Felix Barrenari zor xaugu. Milla esker Felixeri eta Udaleko langillai.